

Izenburua:

EMAKUME LESBIANEN IKUSGAITASUNA ETA PARTE HARTZEA EUSKADIN

Ikerketa aplikaturako beka baten laguntzaz egindako azterketaren ondorioak (Arartekoak egindako deialdia 2005-2006 denboraldirako – 2005-11-11ko EHAA); ikerlana Bilbon, 2007ko irailean burutu zen.

Sarrera:

Ikerlan honen jatorrian lesbianen ikusezintasuna dago; horixe izan da lana aurrera eramatera bultzatu nauena. Helburua berriz, ikusezintasun hori sortarazten duten kausak eta horrek bai lesbianentzat bai eta gizarte osoarentzat dituen ondorioak ezagutzea eta ezagutaraztea izan da.

EAEko homosexualitatearen eta lesbianismoaren errealitatea agertzerakoan, bada azpimarratu beharreko datu bat: gizonezko eta emakumezko homosexualen jendaurrekoa presentzia ez da berdina eta *nabarmena da lesbianen ikusgaitasun sozialaren defizita*. Izan ere, ez dago jendaurreko esparruan bere burua lesbianatzat aurkezten duen emakumerik, eta gizonezko homosexualekin gertatzen denaren kontra, ez dago lesbiana ezagun multzo zabalik. Horren ondorioz, homosexualitatearen errepresentazio soziala, funtsean, gizonezkoena da. Baliteke, gaur egun, euskal lesbianak errealitatean baino egokiago irudikaturik egotea fikzioan, telebista kateek plazaratzen dituzten telesaileri esker (Hospital Central, Aquí no hay quien viva, Siete Vidas, The L Word, etab.)

Lesbianen ikusezintasunaz hitz egitea topikoa bilakatu da, lesbiana zer den adierazteko definizioei erantsi beharreko leloa. Saihestu ezineko gaia izan da lesbianen mugimendua sortu zenetik, eta egun ere hala da. “*Lesbianen ikusezintasuna* deitu izan den hori egitate bat da eta lesbiana batek bizi ditzakeen egoera guztiak berez azaltzen dituen axioma modura funtzionatzen du”¹. Baina, izatez, besterik gabe onartzen den egitatea baino gehiago da. Lesbianen ikusgaitasun defizitak asko kezkatzen gaitu egunero lesbianismoaren alorrean dihardugun emakumeak, maiz zentzazioa izaten baitugu gizonezko gayen jendaurreko presentzia nabarmenagoa eta onartuagoa den neurrian, gehiago ezkututzen edo estaltzen dela emakume lesbianen presentzia publikoa. Balirudike “gay” deitzen den multzo horrek lesbianen errealitatea lausotu egiten duela.

Lesbianen ikusgaitasuna ez da diskrezio kontu bat. Hori ezin da ez eta eztabaidagai modura planteatu, nire abiapuntua baita emakume orok bere praktika sexualei eman nahi dien pribazitate maila, edozein dela ere, guztiz zilegia dela. Ikerlan honen xedea ez da izan sexu harremanetako diskrezioaz edo intimitateaz gogoeta egitea, nahiz gai horiek sarritan erabili lesbianen ikusezintasuna aztertu edo aipatu nahi denean. Lesbianak sozialki ikusezinak izatea norberaren aukera kontua balitz, hau da, sexualitatea intimitatean bizitzeko aukera egiten dutela, ez litzateke egongo *lesbianen ikusezintasuna arazoa*. Eta egon badago, arazoa da, lesbianeiei ez ezik gizarte osoari eragiten dien arazoa.

¹ GIMENO BEATRIZ, *Primeras caricias*, Madrid, Edición de la Tempestad, 2002, 12. or

Urte luzez, bai eta mende luzez ere, lesbianismoa ezkutaturik egon izana bada zerbaiten adierazgarri, alegia, nagusi den sexualitatearen adierazpenarena; sexualitate hegemoniko horren arabera *heterosexuala* da sexu joera normala eta, oraindik orain, sexista da oso, emakumeen gaitasunak eta autonomia sexuala ukatzen baitu. Ideologia sexual horrek portaera heterosexualak ez dituzten pertsonak estigmatizatzen ditu eta gizonezkoen sexualitatearen menpe jartzen du emakumeen sexualitatea. Azken finean, lesbianen ikusezintasuna sexualitatearen gaineko ideia jakin batzuen ondorio da, ideia horiek ez baitiote garrantzirik ematen emakumezkoen sexualitateari eta, beraz, ez dute onartu ere egiten lesbianarik egon daitekeenik.

Ikusgaitasuna norbanakoen prozesu konplexu baten atala da: lesbianismoaren deskubrimenduarekin hasten da, horren onspena du jarraipena eta ikusgai bilakatzearekin amaitzen da. Ikusgaitasuna ez da besterik gabe egiten den keinu doakoa. “Ni ez naiz heterosexuala, ni lesbiana naiz” esan ahal izateko bide neketsua ibili behar izan dute elkarrizketaturiko emakumeek: beldurrei aurre egin, erru sentimenduari, norbere burua berezi ikusteari, aurreiritziei, etab. Normalean ez zaie erraza gertatu, ez eta gertatzen, beren burua ikustaraztea, jakin badakitelako horrek esanahi sozial handia duela eta aurreiritzirako joera duten testuinguru sexistetan egiten dutelako. *Lesbianen Ikusgaitasuna ikusgai, ageriko bilakatzearen ekintza da eta, batez ere, ekintza horren atzean dauden esfortzu handiak, bai norbanakoenak bai taldeenak.*

Homosexualei oro har eta lesbianeiei bereziki, sistematikoki ukatu zaizkie gizartearen baitako boterea eta eragina. Planteamendu teorikoetan azaldu den bezala, heterosexualitatea faktore nagusi modura agertzen da eta homofobia eta sexismoaren bitartez gauzatzen du bere boterea. Horri dagokionean, ustez egiazkoak diren sexualitateari buruzko mezua kultural eta ideologikoak barneratzea eta ikusezintasuna -edo “modu ezkorrean iradokitako ikusgaitasuna”²- mekanismo ezinbestekoak bilakatzen dira eta areagotu egiten dute lesbianak esparru sozialetatik urruntzea bai eta haien estatus nahiz autoestimu eskasa.

Ikusgaitasunak lotura estua du lesbianen indar hartze kolektiboarekin edo *jabekuntzarekin*³. Alde horretatik, dimentsio bikoitzeko prozesutzat jotzen dugu ikusgaitasuna, bai baititu norbanakoaren dimentsioa eta talde-dimentsioa.

- *Norbanakoaren* dimentsioak esan nahi du badagoela prozesu bat zeinaren bidez emakume lesbianeek beren burua gai ikusten baitute dituzten beharrei erantzuteko, hautuak egiteko, emakumeekiko desira afektibo eta sexualak dituzten emakumeak izateko eta horrela agertzeko gizartearen aurrean; aldi berean, beren harremanen zer-nolakoak negoziatzeko eta harreman horietan eragiteko gaitasuna garatzen dute.
- *Talde* dimentsioak esan nahi du gizarte-talde diren heinean sustatzen dela lesbianen protagonismoa, bizi dituzten egoeren aldaketa onuragarriak bultzatzeko. Horrela bada, lesbianak jabetu egiten dira euren eskubide eta interesez eta nola gainerako lesbianenekin lotuta dauden, garrantzitsua dena nork bere aldetik lor lezakeena

² GIMENO, BEATRIZ, *Historia y análisis político del lesbianismo. La liberación de una generación*, Barcelona, Ed. Gedisa, 2006, 325. or.

³ Jabekuntza estrategia bat da, zeinaren abidez pertsonak giza-talde modura dituzten gaitasunak, konfidantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzen baitituzte, bizi dituzten bazterketa egoeren aldaketa onuragarria bultzatzeko. Argibide gehiagorako: *Empoderamiento* Clara Murguialday, Karlos Perez de Armiño eta Marlen Eizagirre; <http://dicc.hegoa.efaber.net>

baino eragin handiagoa lortzeko. Ikusgaitasunak, beraz, esanahi sozial eta politiko sakona hartzen du.

Erabilitako metodologia:

Helburuak erdiesteko eta hipotesiak baieztatzeko erabili dudan ikerketa metodoa kualitatiboa izan da, errealitatea deskribatzeaz gain lesbianismoaren dimentsio sinbolikoa ere interpretatu nahi baita onespren eta ikusgaitasun ezaren arabera.

Informazio iturri nagusia 18 emakume lesbianari egindako elkarrizketa sakonak izan dira, haietako bakoitzaren bizitza-kontakizuna lortzeko. Elkarrizketa biografiko horien xedea lesbianen bizi-esperientziak ezagutzea zen, haien bizitzako garai esanguratsuenen bitartez –haurtzarora, nerabezarora, gaztarora eta helduarora– eta mugitzen diren giroen bitartez. Elkarrizketa horietan estigma, bereizkeria, ikusezintasuna, nortasunaren eraikuntza eta gizartean parte-hartzea nola bizi izan duten eta horri buruzko oroitzapenen deskripzio trinkoa bilatu dut.

Elkarrizketaturiko emakumeengana heltzeko kontuan hartu dut, lehenik eta behin, “lesbiana” terminoak berak duen konplexutasuna, kultura eta garaien arabera esanahi aldakorra, zabala eta neurri batean adostu gabea izan baitu emakumeen beraien artean. Horrela bada, *lesbiana* kontzeptuaren adiera osoa hartu dut, hau da, lesbianatzat joko ditut interes emozional, psikologiko, sozial eta sexualak (nagusiki) beste emakumeekikoak dituzten emakumeak, nahiz eta horrela garbi ez azaldu. Horrez gain, aintzat hartu dut halaber, beste emakumeekiko interes horiek ez dutela indar bera emakume guztiengan. Lesbiana adieraren barruan sartzen ditut, beraz, nortasun lesbikoa onartu ez arren eta bere burua lesbianatzat jo ez arren esperientzia lesbikoa bizi duten emakumeak.

Aukeratutako emakumeen lagina ahalik eta askotarikoena eta ausazkoena izan zedin saiatu naiz eta, horrela, nire lagunengandik inguru gertuenekotik bai eta, ahal izan dudanean, neurrian, ALDARTEN burutzen dudan lanagatik gertuen ditudan emakumeengandik haratago jo dut. Hautatutako lagina ez da lesbiana guztien adierazgarria edo emakume “lesbianen ereduaren” erakusgarria. Aukeratu ditudanak bizi behar izan dituzten gertaerengatik eta beren bizi-istorioengatik aukeratu ditut eta, nolahi ere, ordaindu ezinako informazio funtsezkoak eta guztiz baliagarriak eskaini dizkidate.

Elkarrizketatu beharreko emakumeak aukeratzeko irizpideak hurrengo hauek izan dira: adina, bizitokia, ahalmen urritasun fisikoa zein psikikoa egotea, ikusgaitasuna (lesbianismoari dagokionean), estatus soziala eta ekonomikoa, gay eta lesbianen talderen batean parte hartzea, amatasuna, erlijio sentimendua egotea, transexualitatea eta immigrazioa.

Guztira egindako 18 elkarrizketetatik 9 Bizkaian bizi diren emakumeekin egin dira, 5 Gipuzkoan bizi direnekin eta 4 Araban bizi direnekin. Elkarrizketa guztiak 2006ko irailetik 2007ko urtarrilera bitartean egin dira eta batz besteko iraupena ordu eta erdikoa izan da.

Emakumeak bigarren mailara baztertzen dituen gizartean agerikoa izatea. Ikusgaitasun lesbikoa mugatzen duten genero baldintzapenak:

Ikusgaitasunak hainbat erreferente ditu elikagai, egungo nahiz iraganekoak, hedabideetakoak, esparru publikokoak, sexualitatearen onspen sozialarena, botere politikoarena..., eta horiek denak defizitarioak dira emakumeentzat. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea lesbianak ez daudela gizonezko homosexualen maila berean ez sozialki ez ekonomikoki; hau da, nahitaezkoa dela genero ikuspegiaren oinarritutako hurbilketa egitea lesbianen ikusgaitasuna zein baldintzatan gertatzen den aztertzeko.

1- Lesbianen ikusezintasunaren ustezko abantailak:

Luzaroan aipatu izan da gizarteak joera permisiboagoa izan duela lesbianekiko, eta gizonezko homosexualak baino hobeto bizi zitezkeelako ustea oso zabaldurik egon da lagun zirelako aitzakiarekin hainbat gauza egin zitzaizketelako (eskutik lotuta ibili, ohe berean oheratu, etab.) susmorik sortu gabe. Ildo horretatik, zenbait une historikotan abantaila bailitzan bizi izan da ikusezintasuna.

Eztabaidan jarri beharko litzateke ikusezintasunak zer ekarpen egin dion ikusezintasunak lesbianen garapenera eta ez gatoz bat balorazio historiko horrekin, gure ustetan ikusezintasuna ez baita sekula ona izan. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da homofobiaz gain, historikoki, axolagabekeria eta onspen sozialik eta legalik eza izan direla emakume lesbianak ikusezintasunera baztertu dituztenak, eta hori “lesbofobiaren bereizgarria da, gayfobian kontrakoa gertatu baita”⁴. Hori dena ezin da interpretatu esanez tolerantzia handiagoa agertu duela gizarteak lesbianismoarekiko gizonezkoen homosexualitatearekiko baino, ez bada baieztatuz “jarrera are mespretxagarriagoaren adierazlea dela, misoginiaren adierazle, emakumeen sexualitatea gizonezkoen desioaren menpekotzat jotzen denez pentsaezinak baitira emakumeen arteko harreman erotikoko afektiboak”⁵.

Emakumeen sexualitaterako begirada sexistak halabeharrez dakar lesbianen sexualitatearen ikusezintasuna -mende luzetan gertatu den bezala- eta eragin nabarmena du lesbianek beren burua ikusteko moduan, beren sexualitatearekiko sentimenduetan, lehen esperientzia afektiboak bizitzeko moduan eta gainerako pertsonekin lotzen dituzten harremanetan. Empar Pineda⁶ feminista eta lesbiana ezagunak zera gogoratzen digu: “gure inguruko jende gehienarentzat oharkabea gelditzeak kostu sozial ikaragarria du, nahiz jarduteko esparru zabala eskaintzen digun kontrako erantzunen beldurrik izan gabe. Mugak gaunditzen ez badituzu -haietatik at ez baitago nahasmenerako aukerarik ez oharkabea gelditzeko modurik-, nahikoa lasai bizi zaitezke, inork ez du *sumatuko* lesbiana zarenik. Baina, zeren truke? Zu zeu guztiz ikusezina izatearen truke, hau da, zu zeu *ez existitzearen* truke”.

Emakumeentzat, ikusezintasunaren kostu sozial ikaragarri hori ez existitzea izan da, kontra egiten ez zaion bazterkerian ezkutatzea. Lesbianen ikusezintasunak ez existitzea ekarri du, ez onerako ez txarrerako, eta geure

⁴ GIMENO, BEATRIZ, Op. Cit., 325. or.

⁵ BORRILLO DANIEL, *Homofobia*, Barcelona, Ed. Bellaterra, 2001, 30. or.

⁶ PINEDA EMPAR, “Lesbiana, yo soy lesbiana, porque quiero y me da la gana”, J.A. Herrero Brasas, *La construcción de una cultura queer en España*, Madrid, Ed. Egales, 2007, 318-9. or.

buruari galdetu beharko genioke ea historia gertukoan lesbianen kolektiboari gertatu zaion gauzarik txarrena ez ote den izan arriskugarritasun sozial eta errehabilitazio sozialaren legearen zuzeneko eraginak jaso ez izana⁷. Horri dagokionean, interesgarria litzateke azterketa tresna egokiak eskuratzea lesbianen historia eztabaidatua⁸ emakumearen berezko zapalketarekin lotuago dauden parametroetatik aztertzeko eta ez bakarrik legearen eta poliziaren zapalketan oinarritutako parametro maskulinoetatik. Izan ere, zapalketa mota hori historikoki ez da emakumeen kontra erabili, zapalketaren jomuga izan zitezkeenak definitzerakoan emakumeak ez baitziren kontuan hartzen. XX. mendea ondo sartu arte emakumeak subjektu gisa existitu ez izanaren ondorioetako bat dugu hori.

2- Esparru pribatuaren funtzionamendu onarekiko erantzukizun gehiegia ikusgaitasunerako sortzen dituen arazoak:

Lesbianen ikusgaitasuna are gehiago zailtzen da emakumeek gehiegizko erantzukizuna dutelako esparru pribatuaren funtzionamendu onarekiko. Horri dagokionez argigarria da emakumezkoek eta gizonezkoek herritartasuna ikusteko moduan dituzten aldeei buruzko Plateroren aipamena⁹: “emakumeak herritartasun sozialera loturik gaude, non gure ekarpenak eta estatutik jasotako zerbitzuak etxearen esparru pribatuko lan ordaindugabeetara loturik dauden, zaintzaren etikaren ildoan. Gizonezkoak ordea, herritartasun zibilera loturik leudeke, non berdinen arteko hitzarmena ezartzen den espazio publikoan”.

Egun ere, esan daiteke etxearen eta zaintzen funtzionamendu egokiaren arduradun nagusiak emakumeak direla¹⁰, eta hori eragozpen handia da lesbianen ikusgaitasunerako.

Etxeko lanaren, familiaren eta zaintzaren alorrean emakumezkoek erantzukizun handiagoa ematearen ondorioetako bat, emakumezkoek izan ohi duten aisialdirako denbora murriztagoa da. Alberdik¹¹ adierazten du denboraren erabilerari dagokionean emakume eta gizonen arteko alderik esanguratsuenen artean aipa daitekeela emakumeek, batzaz beste, denbora gehiago eskaintzen diotela ordaindu gabeko lanari eta gizonek berriz, aisialdiari. Kontu hori ez da hutsala eta, nire esperientziaren arabera, egun emakume helduei eragiten die gehien bat, seme-alabak dituztenei eta besteen zaintzan gehiegizko ardura dutenei, eta horien artean lesbiana asko daude.

⁷ Lege horrek ekintza “arriskutsuak” burutzen zituztenak pertsegitzen zituen, ez praktikak, eta gizonezko homosexuali aplikatzen zitzairen. Lesbianen sexualitatea aurreikusten ez zenez, lesbianak ez ziren kontuan hartzen zigorra merezi zuten kasuak zerrendatzean. Informazio gehiago: LLAMAS RICARDO eta VILA FEFA “Spain: Pasion for life. Una historia del Movimiento de Lesbianas y Gays en el Estado Español”, in Xoxé M. Buxán (Ed.), *Conciencia de un singular deseo*, Barcelona, Ed. Laertes, 1997

⁸ Honi buruzko argibide gehiago lortzeko, ikusi SIMONIS ANGIE-ren ponentzia: “Lesbofilia: asignatura pendiente del feminismo español”. <http://www.felgt.org/temas/politicas-lesbicas> helbidea irakurgai

⁹ PLATERO MENDEZ RAQUEL, “Entre la invisibilidad y la igualdad formal” in Angie Simonis (eda.), *Cultura, homosexualidad y homofobia VOL. II / Amazonia: retos de visibilidad lesbiana*, Barcelona, Ed. Laertes, 2007, 99. or.

¹⁰ Zaintzaile nagusien % 84 emakumeak dira, PSOEek 2004ean argitaratutako *Menpekotasunaren Liburu Zuria* agiritik ateratako datua.

¹¹ ALBERDI INES, *La nueva familia española*, Madrid, ed. Taurus, 1999, 249-252 or.

3- Sexualitatea atseginez bizi, ikusgaitasunerako abiapuntua:

Sexualitatea konplexua denez, eraso eta zapalketez bezainbeste plazeraz eta zorionez hitz behar da alor horretan.

Bizi dugun kultura androzentrikoak gauza asko ukatzen dizkie emakumeei, besteak beste sexualitatea eta sexualitate hori bete-betean bizitzeko gaitasuna; ondorioz, maiz mesprezatzen eta gutxiesten dira emakumeen sentimenduak, sentsazioak eta haien sexualitatearen bizipena. Gizartean informazio ugari egon arren, asko baitira argitalpenak eta ikerketak, emakume askok, oraindik ere, ez dituzte haien sexualitatearen zenbait alor ezagutzen eta eutsi egiten diete tabuei, euren buruen kontra jardutea den arren, emakumeentzat sexua bigarren mailako zerbait delako eta sexua plazerez bizitzea garrantzitsua ez zaielako aurreiritzia indartzea den arren. Emakume lesbianek ere egoera hori pairatzen dute, eta horrek are zailagoa egiten du ikusgaitasuna.

Gay dena alaia eta *glamour* handikoa delako usteak, neurri batean, indarrean dagoen ereduaren ondorioa da, horren arabera gizonezkoengan onartuago baitaude sexu grina eta sentimenduak izatea nahiz adieraztea. Horrek gizon homosexualen ikusgaitasuna bultzatzen du, sexu nortasuna garatzeko prozesu arinagoa ahalbidetzen baitu. Lesbianek ez dute oraindik lortu gizon homosexualen sexualitatearekiko dagoen onespen soziala eta zailagoa zaie sexu nortasuna garatzeko prozesua eta, beraz, ikusgaitasuna bera ere. Horri dagokionean, gizon eta emakumeen arteko alde hau egiaztatu du Perez Sanchok¹² bere ikerketan: gizonezkoek lehenago eta maizago jakinarazten diete homosexualak direla beren ingurukoei.

Argi dago sexu kontuetan gizonezkoak eta emakumezkoak ez daudela toki berean. Abiapuntuak ez dira berdinak eta lesbianen agerikotasuna bultzatzeko gehiago hitz egin beharko litzateke emakumeen sexu grinaz eta sustatu emakumeek euren sexualitatea modu positiboagoan bizitzea. Gizonezko homosexualak bezala lesbianek ere beren sexu joeraren berrespena jaso behar dute ingurukoengandik, “politikoki zuzena” den gizarte onespenaz haratago.

Lesbiana etiketaren arazoa

Lesbianismo terminoak errealitate askotarikora, konplexura eta aldakorrera hurbiltzen gaitu, emakume guztiek ez baitiete esangura bera ematen euren bizipen homosexualari. Ez dago lesbiana izateko modu bakar bat ez eta norberaren burua lesbianatzat hartzeko modu bakarra, izan ere, ikerlan honetarako elkarrizketatu ditudan emakumeetako batzuk bakarrik identifikatzen ziren ehuneko ehunetan lesbiana izendapenarekin, beste batzuek askoz gehiago erlatibizatzen zuten eta ez zuten beren burua talde horren baitan ikusten, urteetako harreman sexuala izan arren beste emakume batekin.

Ikusgaitasuna egintza publikoa da eta nahitaezkoa da besteek lesbiana izateaz duten esanahiaren aurrean kokatzea. Alde horretatik, etiketa jartze hori berez dakar ikusgaitasunak eta beti ere aldea egongo da agerikora ateratzen duten emakume

¹² PÉREZ SANCHO BEGOÑA, *Homosexualidad: secreto de familia. El manejo del secreto en familias con algún miembro homosexual*, Madrid, Ed. Egales, 2006

horientzat lesbianismoa zer den eta zer esanahi duen “lesbiana” etiketa sozialak. “Direna direla ere, lesbianak irudikatu egiten dira, horretan ez dago dudarik. Eta irudikapen horiek garrantzitsuak dira eraiki egiten dutelako, eta esperientziaren gainetik eraikitzen dutelako”¹³. Lesbianismoaren irudikapen sozialak ez ohi dira bat etortzen lesbianek beren buruez dutenekin. Eta ikusgaitasunaren berezitasun horrek garrantzia handia du, maiz oztopo bilakatzen baita emakumeek beren lesbianismoa ager dezaten.

Lesbiana modura sailkatua izateari uko egitea edo izendapen horren aurrean zuhurtzia agertzea guztiz jarrera zilegiak dira, eta sexualitatearen inguruan ezartzen diren gizarte-identitateetara biltzeko eta egokitzeko pertsona guztiok dugun askatasunaren baitako zerbait da. Are gehiago, elkarrizketatutako emakume askori lagungarria gertatu zaie etiketara ez biltzea ikusgai bilakatzeko prozesuan. Baina norbanakoaren esparruan lortzen diren abantailak galdu egiten dira talde dimentsioan esperientzia lesbikoak izendatzeko zailtasunari erreparatzen diogunean, izenik eza edo izendapen batera argi eta garbi ez biltzea arazo gertatzen baitira errealitate jakin hori gizartean ikusgai agertu eta gizartearen onspena lortu nahi denean.

3- Lesbiana izendapenarekin ez identifikatzeak ikusgaitasunerako dituen ondorioak

Lesbiana izendapenarekiko dagoen atxikimendu eza ikusgaitasunerako oztopo da zenbait arrazoiengatik:

- Zenbait gizarte eskaera planteatzeko eta bereizkerien kontrako borroka aurrera eramateko oraindik beharrezkoa den talde identifikaziorako oinarria gal daiteke.
- Norbanakoaren ikusezintasunean gordetzea dakar, eta horrek zaildu egiten du oraindik ere aurreiritziz kargatua eta sexista den errealitatea eraldatzea.
- Erreferentzia sozial positiboak sortzea ekiditen du, eta erreferentzia horiek onuragarriak izan daitezke ezkutuan dauden edo agertze prozesuan dauden lesbianentzat.

Ondorioak:

- Ikusgaitasuna ez da kontu erraza lesbianentzat eta esfortzu handia egin behar dute inguruan dituzten oztopo ugariari aurre egiteko eta horiek gainditzeko -beldurrak, lotsak, erru sentimendua, desberdin, berezi edo anormala sentitzea, bakardadea, isiltasuna eta barneraturiko homofobia- “ez naiz heterosexuala, lesbiana naiz” esan ahal izan baino lehen. Eta oztopo horiek emakumeek erakartzen dituztela sentitzen hasten diren momentutik aurkitzen dituzten aurre-juzkuen ondorio dira.
- Lesbianismoaren definizio estereotipuetatik askatzeak eta gutxietsitako eta sozialki inposaturiko nortasuna berreskuratzeak prozesu luze eta konplexuetara behartzen ditu emakumeak beren burua lesbiana modura onartzeko eta izaera hori erakutsi ahal izateko. Emakume lesbiana guztiak, adina nahiz egoera soziala edozein dutela ere, prozesu horietatik pasatzen dira.
- Duela gutxi lortutako lege aldaketek halako “berdintasun ilusioa” sortu dute eta horrek azal lezake lesbofobiaren eraginak minimizatzeko gizarte eragileek eta gizarteak oro har duten joera; horren atzean legoke lege aldaketen eta aldaketa

¹³GIMENO, BEATRIZ, Op. Cit, 293. or.

sozialen artean ezartzen den zuzeneko lotura, pentsatzen baita lege aldaketak lortu badira gizarte aldaketak ere lortuak daudela. Horrela bada, lesbiana izateak jada gatazkarik sortzen ez duela pentsatzen da. Pentsamolde horrek zailago egiten du sexu joera edo aukeragatiko bazterketa eta bereizkeria egoera errealak azaleratzea eta ondorioz ikusgaitasunak ez du esangura sozial eta politikorik, arazo pertsonala bilakatzen da, non dena konpontzen baita emakumeak bere burua lesbianatzat hartzen badu.

- Alderdi horren isla ikus daiteke beren burua onartzeko eta ikusarazteko lesbianek burutzen dituzten prozesuetan. Prozesu horiek, batetik, ezinezkoa egiten dute emakume lesbianak zoriontsu izatea bizitzaren parte handi batean, arazo psikologiko ugari sortzen baitizkiete; eta, bestetik, ez dute ez eztabaida ez alarma sozialik sortzen, ez baitzaizkie ematen benetan duten garrantzia eta dimentsio politikoa. Gomendagarria litzateke hezkuntzaren, politikaren, elkarteen eta arretaz-zerbitzuen alorrean diharduten gizarte eragileek prozesu horiek aintzat hartzea ez bakarrik dimentsio pertsonala kontuan hartuta, ez bada jabetzea ere badiren aldetik, arrakasta sozialaren elementu diren aldetik, emakumei beren sexualitatearen jabe izaten historikoki eragotzi dieten oztopo heterosexistak gainditzeko prozesuak diren aldetik. Horrela bakarrik antzematen hasi ahal izango dira ikusgaitasun lesbikoaren defizita sortzen duten gertaerak, maiz sotilak baitira; hau da, kontuan hartuta ikusgaitasun-ekintzak gertatzen diren testuinguruetan heterosexualitatea faktore nagusia dela eta lesbofobia eta sexismoaren bitartez gauzatzen duela bere boterea.
- Ikusgaitasunak hainbat erreferente ditu elikagai, hedabideetakoak, esparru publikokoak, sexualitatearen onspen sozialarena, botere politikoarena..., eta horiek denak defizitarioak dira emakumeentzat. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea lesbianak ez daudela gizonezko homosexualen maila berean ez sozialki ez ekonomikoki, ez politikoki eta horren ondorioz *ikusgaitasun sozial defizit* nabarmena dutela gizonezko homosexualen aldean. Horrela bada, *lesbianen errealitatea gayen errealitatearen aldean kualitatiboki desberdintzat jo behar da, eta desberdintasun hori behatu, aztertu eta baloratu egin behar da*. Bereizketa hori egitea funtsezkoa da emakume lesbianen ikusgaitasuna eta parte hartze soziala bultzatu nahi duten politikak planifikatu eta abian jartzeko, zeren eta egia izan arren gayak eta lesbianak “armairutik ateratzen direla” horretarako bermea dutenean, oraingoz gizonezkoek erraztasun handiagoak baitituzte laguntza sozial, ekonomiko eta politikoak lortzerakoan.
- Aintzat hartu behar da, halaber, gizonek eta emakumeek egin duten ibilbide historiko desberdina subjektu juridiko gisa onartuak izateko. Onspen horrek berrogeita hamar urte eskas ditu emakumeen kasuan eta baldintzatu egin du ikusezintasunak lesbianentzat duen esanahia, alegia, historian existitu ez izana, ez onerako ez txarrerako, lesbofobiaren berezko aurreiritzi eta estereotipoei aurre egiteko zailtasun handiak, eta talde sozial modura jendaurrean erantzuteko aukera urriak.
- Etxeko lanaren, familiaren eta zaintzen alorrean emakumei egotzitako erantzukizun handiagoa oztopo larria da lesbianen ikusgaitasunerako. Gehiegizko erantzukizun horrek bi ondorio garrantzitsu ditu lesbianen sexualitatearen garapenean: 1) emakumeek erraztasun handiagoa dute besteen interesen arabera jokatzeko, norberaren ongizateari, intimitateari eta sexu plazeraren bilaketari uko

eginez, 2) emakumeen dezente denbora gutxiago dute aisialdirako, eta denbora hori nahitaezkoa da harreman afektibo eta sexualak lotzeko. Hauek ez dira kontu hutsalak eta bereziki eragiten diete adineko lesbianeiei, ezkonduak, banatuak edo seme-alaben amak. Elementu horiek kontuan hartu beharko lirateke gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko politikak planifikatzean, lesbianen ikusgaitasun defizita emakumeen berezko bazterkeria egoerekin uztartuz. Horren ildoan, funtsezkoa da bai erakunde publikoek bai elkarte pribatuek landutako Berdintasun Planek nahiz genero desberdintasunak ezabatzeko bestelako lan proposamenek emakume lesbianeiei buruzko aipamen bereziak biltzea bere ekintzetan, jarrera lesbofobikoen aurreko sensibilizazioa sortzeko eta haiek ezabatzeko.

- Lesbianak askoz agerikoagoak dira esparru pribatuan publikoan baino Horrela bada, zabalagoa da eta hobeto kudeatzen da familia barruko eta lagun alorreko ikusgaitasuna, lan mundukoa, auzokoen artekoa, kalekoa, hedabideetako, politikakoa, enpresa mundukoa baino. Lesbianen ikusgaitasun defizita bereziki esanguratsua da esparru publikoan, lesbianismoaren eta horren errebindikazioen defentsa gidatzeko prest leudekeen emakumerik ez egotea baitakar, besteak beste, lesbianek beraiek pertzibitzen baitute lesbianismoa esparru guztiz pribatukoa dela.
- Lesbianismoaren pertzepzio guztiz pribatu horren atzean emakumeek sexualitateaz jasotzen duten heziketa dago, irakasten baitzaie modu intimo eta diskretuan bizi behar dutela sexualitatea, arreta gune bilakatu gabe. Ondorioz, zaila egiten zaie sexu kontuak agerian jartzea. Beste alde batetik, nagusi den eredu sozialaren arabera onartuago dago gizonezkoek sexu grina eta sentimenduak adieraztea eta kanporatzea eta horrek gizonezko homosexualen ikusgaitasuna bultzatzen du, nortasun sexualaren garapen prozesu arinagoa bideratzen baitu. Lesbianek ez dute oraino lortu gayek eskuratutako onespren soziala eta zailagoa zaie bai agerikoak izatea bai nortasun lesbikoa garatzea. Jendaurrean bere lesbianismoaz mintzo diren emakumeen kopurua ez da handitzen lege eta gizarte aldaketan neurri berean. Horrez gain, lesbianen ikusgaitasuna esparru publikoan ez da ez kopuruz ez eta egoera aniztasunean gizonezko homosexualen lortutakoaren parekoa.
- Lesbianismoaren agerikotasun sozialean bada begi bistako errealitate bat: ia batere lesbianarik ez dago gizartearen, ekonomiaren, kulturaren nahiz politikaren goi mailetan. Ondorengo hauek ditugu horren arrazoiak: 1) Lesbianismoak oraindik orain pairatzen duen gehiegizko estigmatizazio soziala, 2) zuzendaritza edo lidergo zereginak burutzean sinesgarritasuna galtzeko beldurra, horretan diharduen emakumea lesbiana dela ezagutuz gero, 3) lesbiana izateak norberaren lorpenak, ahalmenak eta gaitasunak ezkatutako ote dituen beldurra, 4) ez da garrantzitsutzat jotzen jendaurreko lesbianismo aitormena egitea norberaren jardura esparruetan, 5) sexualitateari dagozkion gaiak guztiz ikuspuntu pertsonaletik pertzibitzen dira.
- Nahiz eta lesbianek esparru pribatu eta egunerokoetan burutzen dituzten ikusgaitasun ekintzak garrantzitsuak eta baliagarrik izan lesbianismoaren normalizaziorako, ez daukate maila publiko eta politikoagoan egiten diren garrantzi berbera. Lesbianek oro har eta, bereziki, taldeetan antolatutakoek aztertu beharreko gaia da hori zeren, egia izan arren ikusgaitasuna ez dela dekretuz lortzen ez eta inposatzen, badirudi gizarteak jakin dezan lesbianismoa alor guztietan egon badagoela beharrezkoa dela lesbianek kontzientzia handiagoa izatea

kolektiboarekiko erantzukizun eta elkartasunaz. Gainera, kontuan hartu behar da ikusezintasunetik edo oso ikusgaitasun urritik abiatuz gero, etxearen esparru pribatutik ateratzeak eta esparru publikoetara agertzeak erraztu eta bultzatu egiten dutela emakumeek beren lesbianismoa azaleratzea, aukera gehiago baitituzte bestelako errealitateekin eta laguntza ezinbestekoa eskain diezaieketen pertsonekin harremanetan jartzeko.

- Ikusgaitasun pribatuaren eta publikoaren arteko desoreka egoera hori dela eta, nahitaezkoa da sentsibilizazio kanpaina publikoak egitea, epe ertainean erreferentzia positibo sendoen sistema indarrean jartzeko, horrek konfiantza emango baitie emakumei lesbianismoa eguneroko bizitzaren beste atal bat gehiago bezala bizitzeko oso esparru garrantzitsuetan, besteak beste, politika, sindikalismoa, kultura, kirola, hedabideak eta enpresa.
- Lesbianak ikusgai bilakatu behar direneko testuinguru sozialetan muga nabarmenak egoten dira, inertzia heterosexista izaten delako eta espektatiba sozialak lesbianen interesen kontrakoak. Ondorioz, ikusgaitasun maila onargarriak eskuratzeko, planteatzen dituzten egoeretarako erritua, arau edo eredurik ez duten gizarte taldeetan negoziatu, eraiki eta maneiatu behar dute euren lesbianismoa emakume lesbianek. Etengabe jarri behar dituzte zalantzatan aurrezarritako bizitza-gidak, horiekin hautsi eta birsortu egin behar dituzte, euren egoeretara egokiturik. Eta hori, testuingurua edozein dela gertatzen da: berdin familian nola lagun taldean, lantokian zein hezkuntza alorrean, auzokoen artean etab.
- Jatorrizko familia oso testuinguru garrantzitsua da gazte lesbianentzat funtsezko espazioa baita, batetik gurasoekin izaten duten atxikimendu estuagatik eta bestetik luzaroan egon ohi direlako gurasoen etxean. Familiaren aurrean lesbianak direla agertzea, beraz, oso gai garrantzitsua da haientzat, euren zoriona horren menpe jartzerainokoa. Gurasoek, normalean, ez dute bizipen horren berririk izaten, ezezaguna baitzaie lesbianismoarekin lotutako guztia, bai eta alabak duen sexu joera onartu eta agertzeko bizi behar duen etapa luze, zail eta beldur eta zalantza betetako horri buruzkoa. Dela ezagutza faltagatik, dela alabaren lesbianismoa onartu nahi ez dutelako, gurasoek normalean ez dute parterik hartzen alaba nerabe eta gazteen garapen afektibo sexualean, eta horrela, alabentzako laguntza eta onespenez iturri izateari uzten diote; laguntza hori beste nonbait bilatu beharko dute orduan lesbianek: “giroan” nahiz gay, lesbiana, transexual eta bisexualen taldeetan. Familiei laguntzeko programa publikoek kontuan hartu behar dute pertsonen sexu joera, familia barruko gatazka iturri izaten delako, maiz oso estalirik egon arren, eta familia barruko sexu aniztasuna bultzatu behar delako.
- Irakaskuntzaren mundua, arautua zein arautu gabea, dugu beste alor garrantzitsu bat, neurri handi batean heterosexualitate normalizatura bultzatzen duen hezkuntzaren luzapena gertatzen baita; familietan hasten da hezkuntza hori eta lesbianismoa ikusezin bilakatzen du. Gaur egun muga nabarmenak daude irakaskuntza emakume lesbianen ikusgaitasuna bultzatzeko alorra izan dadin.

- Nahitaezkoa da, beraz, irakaskuntza arautuaren eta ez arautuaren alorrean lan egitea gazte gay eta lesbianen nortasunaren garapen positiboa bermatuko duten neurriak bultzatzeko, horrela saihestuko baitira maiz jasan behar izaten dituzten jazarpen eta eraso fisikoak. Besteak beste, honako hauek lirateke hartu beharreko neurriak:
 1. Irakaskuntza maila eta ikasketa guztietako curriculumetan sexu eta genero joeren aniztasunari buruzko edukiak sistematikoki sartu Euskadiko ikastegi guztietan, publiko, hitzartu nahiz pribatua izan.
 2. Sexu aniztasunari buruzko ezagutza eta genero eta sexu-nortasunari buruzko edukiak sartu iraka-pertsonalaren etengabeko prestakuntzan.
 3. Sexu aniztasunari buruzko prestakuntza ikastaroak bultzatu, ikasleen guraso elkarreentzat.
 4. Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen elkarrean eta hezkuntza, kultura eta aisialdi elkarrean arteko lankidetzak hitzarmenak sustatu. Ildo horretan, joera aniztasuna lantzeko hezkuntza proiektuak lantzen dituzten erakundeei beharrezko laguntzak eta baliabideak eskaini.
 5. Irakasle homosexual eta lesbianen ikusgaitasuna erraztu, ikasleek gay eta lesbianen gertuko erreferentzia positiboak izan ditzaten, lagungarri gertatuko baitzaie une larrietan.
 6. Aisialdiaren alorretik gizarte eraldaketarako baloreak landu, aisialdian parte hartzen duten eragileak tolerantzian eta sexu-aniztasunean presta daitezten bultzatuz.
- Lan munduari dagokionean, aipatu behar da lesbianen %7ak baino ez duela bere sexu-joera jendaurrean azaltzen, gizonezko homosexualen kasuan ordea, %16ak. Ikusgaitasun alde nabarmen hori lan munduan dagoen bereizkeria sexista handiarekin loturik dago.
- Emakumeak beren lesbianismoa agertzeko uzkur agertzeak adierazten du lantokietan, oraindik orain, ohikoegiak direla bereizkeria eta homofobia; eta sexu aukeragatiko kanporaketarik ez egotea edo lan bereizkeriagatiko salaketarik ez aurkeztea ezin daiteke lesbofobia eta homofobia ezaren adierazletzat hartu.
- Kaleratuko dituzten beldurra baino gehiago, esamesen jomuga, sexu-joera dela eta arreta zentroa, txantxa-iseken jomuga bilakatzeko kezka izaten da, maiz, emakumeek lantokietan lesbianak direla ezkutatzeko arrazoia. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar lan ezegonkorrak eta prekarioak dituzten emakume askok kaleratuko ote dituzten beldurrez ezkutatzeko dutela beren joera. Era berean, enpresetako zuzendaritza-postuetan egoteak ez du ikusgaitasun handiagoa bermatzen.
- Administrazio publikoan lan egiteak, enpresako harreman funtzional eta hierarkikoak gidatzen dituzten arau objektiboak egoteak eta langile kopuru handia duten enpresetan lan egiteak lesbianen ikusgaitasuna areagotzen duten faktoreak dira.
- “Luma” izateak ikusgaitasuna erraz dezake emakume batzuen kasuan, lankideek ez baitute dudarik izaten heterosexuala ez dela, baina bereizketarako elementu ere bilaka daiteke tradizioz emakumeenak izan ohi diren lan esparruetako kontratazio eta pertsonal hautaketetan.

- Lan munduan konpromiso ageriagoa behar da indar sindikalen aldetik lantokietan gay eta lesbianen benetako ikusgaitasunaren aldeko kanpainak bultzatzeko. Modu berean, lan alorreko bazterkeria sexistaren kontra egiten diren kanpainetan, joera lesbikoaren irizpidea ere sartu beharko litzateke, emakume lesbianen ikusgaitasuna bereziki errazteko. Halaber, administrazio publikoei dagokienean, gomendagarria litzateke enpresetarako eta lan harremanetarako praktika egokien gida sortzea, non gay eta lesbianak ez baztertzeko gomendioak agertu beharko liratekeen.
- Emakume lesbianen ikusgaitasuna errazten duten faktoreen artean, hauek aipa daitezke: aurrerapen sozialak eta lege alorrekoak, hedabideen bitartez erreferentzia positiboak izatea, LGTB taldeak eta talde feministak, migrazioak, “giro” lesbikoa, interneten dauden lesbianen “txat”ak eta, oro har, lesbianismoa deskubritzeko eta onartzeko prozesuak bultzatzen dituzten faktoreak, lesbianen arteko topaketak, norberaren sexualitatea hobeto ezagutzea, jolas eta kultura jarduerak burutzea, bikotea hartzea eta emakumeen eta lesbianen eskubideen inguruko sentsibilizazioa. Faktore horien artean azpimarratzekoak dira: 1) lagun lesbianen ingurua izatea; 2) sexualitate-arauekiko eta generoaren araberako rol banaketa tradizionalarekiko jarrera kritikoa edukitzea.
- Amatasunak lesbianak ikusezin bilakatu ditu urte luzetan; gogoz kontrako ezkontzen ondorio ziren seme-alabak eta desio lesbikoari uko egiteko edo hura baztertzeko arrazoietakoa bat izaten ziren. Nolanahi ere, egoera aldatu egin da eta ikusgaitasuna nahitaezkoa bilakatzen da amatasuna modu librean hautatzen denean; esaterako, gaur egungo ama lesbiana askoren kasuan, lagundutako ugalketaren bitartez izaten baitituzte umeak. Emakume horiek eskuratzen duten ikusgaitasunaren ordaina ez da maila bereko konpromisoa erakunde publikoen partetik, gaur egun hutsune nabarmenak baitituzte hainbat protokolotan familia lesbikoen beharretara egokitzeko.
- Garrantzitsua da gay eta lesbianen bizipenak ez homogeneousatzea, eta garrantzitsua da, halaber, emakumeek bizi dituzten gizarte egoera desberdinak berdintzat ez jotzea. Horietako egoera bakoitzak behar eta zertzelada jakinak islatzen ditu eta horiek aldarazi egiten dute lesbianek ikusgaitasuna kudeatzeko duten modua. Kezka iturri dira, hortaz, hurrengo ezaugarriak dituzten zenbait lesbiana talderen egoerak: 1) gizarte bazterketa eta zaurgarritasuna handiak dira, 2) bai gertueneko inguruetan, bai eta arreta eskaintzen dieten gizarte zerbitzuetan zailagoa da lesbianismoa onartzea eta 3) aukera gutxiago dituzte gizarteratze lesbikorako baliabideak eskuratzeko. Lesbianismoaren ikusgaitasuna ezereza edo oso murrizta izan daiteke hauetako emakume taldeetan: 1) adinekoak, 2) etorkinak, 3) ijito etniakoak, 4) nolabaiteko gutxitasun fisiko edo psikikoa dutenak, 5) gizon batekin ezkontutakoak eta 6) emakumezko transexualak
- Egoera horren aurrean, komenigarria litzateke gizarte ongizatearen alorreko erakundeek sexu joeragatiko bazterketa eta zaurgarritasuna irizpidea barneratzea interbentzio protokoloetan, alor horretan diharduten eragileek kontuan har dezaten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko garrantzitsua izan daitekeela sexualitatea nola bizi duten aintzat hartzea. Era berean, garrantzitsua izan daiteke dirulaguntza lerroak sortzea eta indartzea gay, lesbiana eta transexual zaurgarrienen –adinekoak, etorkinak, ijito etniakoak, gutxitasuna dutenak eta ezkontza heterosexualetan

ezkondutakoak– integrazioa eta gizarte kohesioa bereziki bultzatzen duten LGTB taldeetarako.

- Azken hiru hamarkadetan aurrerapauso nabarmenak egin dira lesbianen ikusgaitasunari dagokionean. Lesbiana gazteen artean ikus daiteke hori hoberen, maizago egoten baitira prest beren joera jendaurrean agertzeko. Desio lesbikoa deskubritzen duten unetik bizi izaten dituzten testuinguru sozial eta legalek posible egiten dute lesbianismoa onartzeko prozesua bizkorragoa eta errazagoa izatea eta prozesu horrek beren nerabezaroa eta gaztaroa hainbeste marka ez dezan baliabide ugari eta askotarikoagoak dituzte, aurreko hamarkadetako lesbianen aldean.
- Gazte lesbianen egoeraren azterketa, alabaina, ezin daiteke soil-soilik aurrerapauso horiek aintzat hartuta, eta lorpenetatik abiatuta aztertu beharko da zergatik emakume askok ez duten, oraindik ere, batera bizitzen sexualitatearen esnatzea eta lesbianismoaren onspen positiboa, eta zergatik ibili behar duten haietako askok bide luze, bakarti, erreferentzia positiborik gabeko eta isiltasunez betetakoa lesbianismoa deskubritu ondoren. Zenbait funtsezko gertaera, aipatu berri dugun hori esaterako, ez dira aldatu, eta gizarteak eta gizarteratzea bideratzen duten instantzia guztiek erronka handia dute oraindik berdintasuna lortzeko, sexu joera gora-behera.
- Gizarteak, egun ere, lesbianismoa berdintasunez, askatasunez eta duintasunez garatzeko esparru mugatzailea eta batzuetan negatiboa da. Ikusezintasuna edo “modu ezkorrean iradokitako ikusgaitasuna” indarrean dagoen mekanismoa da eta espazio publikoetatik urrunarazten ditu lesbianak. Dirudienek, lesbianen ikusgaitasun sozialak halako “kristalezko sabaia” du eta horrek eragotzi egiten du emakume, gay eta lesbianen eskubideen alde gizartean eta legetan lortu denaren abiadura berean aurreratzea.
- Emakumeen arteko sexualitatea agerikoagoa eta onartuagoa izatea ezin daiteke bakarrik lesbianen erantzukizuna izan, gizarteak berak eratu eta ezarri behar ditu lesbianismoa hobeto ulertzeko mekanismoak, bai esparru legislatibo eta juridikoan, lan mundukoan, osasunekoan eta hezkuntzakoan nola kultura, aisialdi, elkarte eta elkartasunekoan.
- Nahitaez ulertu behar dugu gizarte gero eta kohesionatuagoa, pertsonen afektibitate, sentimendu eta sexu joera askotarikoekiko begirunetsuagoa lortzeko gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu behar dela, eta horretara heltzen ez garen artean, gay eta lesbianen kolektiborako lortuko den onspen, begirune eta ikusgaitasun maila oro, eskasagoa izango da lesbianentzat gizonezko homosexualentzat baino.
- Sexualitatea emakumeentzat gero eta atseginagoa, hertsadurarik gabekoagoa eta jendaurrean sozialki onartua izan dadin lortzea ezinbestekoa da lesbianen ikusgaitasuna bultzatzeko. Horrelakorik ez da lortuko baldin eta erakunde publiko zein pribatuek beren agendatan sartzen ez badute sexu eta sexu-joeraren inguruko eskubideen eztabaida emakumeen gainerako giza eskubideen atal modura.

INMACULADA MUJICA FLORES. ALDARTEko, “Gay, lesbiana eta transexualen arretarako Zentroaren”